

› GORA ‹ PALESTINAR ERRESISTENTZIA! SIONISMOA GENOZIDA

Uneotan Gazako palestinarrek etengabeko bonbardaketak eta blokeo krudela jasaten ari dira Estatu sionistaren eskutik. 5.000 palestinar baino gehiago erail dituzte, horien herena umeak. Azpiegitura zibilak bonbardaketen jopuntu izatearekin batera, ur, argi eta janari hornidurak eten dizkie Estatu sionistak. Eta larriena da mendebaldea berriro ere genozidio eta gerra krimen hau guztia gidatzen eta babesten ari dela.

Horrekin batera, azken egunotan, areagotu egin da israeldar kolonoen eta okupazio indarren biolentzia Zisjordaniako herri palestinarren aurka. 400 palestinar baino gehiago ari dira atxilotzen egunero, erailak izan dira 70etik gora palestinar, sua eman diete palestinarren baliabide materialei eta lurri.

Alabaina, gertakizunok salatu eta Gazako genozidioaren amaiera aldarrikatzeaz gain, hurrengo ere adierazi nahi dugu:

1. Egungo koituntura ez dago ulertzerik 75 urte luzez Palestinan Estatu sionistaren eskutik etorri diren kolonialismoa, apartheid eta garbiketa etnikoa, eta Gazaren aurka 15 urte baino gehiago iraun duen blokeoa azaldu gabe.
2. Palestinarekiko elkartasunaren kriminalizazioa edo palestinar bandera toki publikoetan erakustea debekatzea, kontakizun hegemonikoa okerra den seinale da. Ez gaude "Hamasen aurkako guda" baten aurrean, herri baten genozidioaren eta harekiko elkartasun keinuen aurkako jazarpen/errepresioaren aurrean baizik.
3. Israel zilegiztatzen duten mendebaldeko gobernuen, enpresen eta alderdi politikoen konplizitate eta kolaborazioa salatzen ditugu. Horrez gain, seinalatu behar ditugu Bakearen izenean alde bietatik biolentzia etetera deli egiten duten diskurtsoak eta zapaltzaile eta zapalduak parekatzen dituztenak. Horrek palestinar erresistentzia kriminalizatu besterik ez du egiten, Israel zilegiztatuz.
4. Urterik odoltsuenetakoa izan da 2023a Palestinarentzat: inbasio militarrek jasan ditu Jeninen, Nablusen eta Jerusalem; beste eraso bat Gazan maiatzean; eta lurralde okupatuetan kolono israeldarren eskutik gizarte zibilarren aurkako biolentzia basatia. Horiek guztiek ez dute prentsako titularretan leku handirik izan.
5. Sionisten aldetik kontsentsu politikoa dagoen arren palestinarren garbiketa etnikoari eta Israel Handiaren eraikuntzari dagokionez, esan beharra dago Israelgoa historiako gobernurik faxistenetakoa dela. Jakina da bere ultraeskuindar ministro sionista batzuek Palestinaren kolonizazio totala eta palestinarren kanporaketa helburu dutela.
6. Palestinar herriak bere okupatzailearen aurkako erresistentziarako eskubidea dauka. Honek har ditzakeen forma eta adierazpen guztietan. Herri baten autodefentsarako erresistentzia ezin da parekatu entitate militar kolonial inperialista batekin.
7. Estatu genozidari boikota, desinbertsioak eta zigorrak ezartzeko unea da. Ezin ditugu normalizat jo gure kaleetan gero eta presenteago dauden adierazpen sionistak, ezta sionismoarekin harreman ekonomiko, politiko eta instituzionalak ematea ere.
8. Irtenbidea Israelgo estatu sionistaren desagerpenaren bidetik eman behar dela diogu, deskolonizazio prozesu bati lotuta; ibaitik itsasora arteko Palestina aske baten eraikuntza, errefuxiatutako eta erbesteratutako palestinarren itzulera, eta palestinar preso politiko guztien askatasuna ahalbidetuko duena.
9. Berresten dugu palestinar herriarekiko elkartasuna eta bere lurraldean eusteko adierazi duten borondate eta duintasunarekiko errespetu eta miresmena. Gure egiten dugu haien grina den "existitzea erresistentzia egitea da".
10. Dei egiten diogu Euskal Herriari Palestinarekiko elkartasun aktiboa adierazten jarrai dezan, palestinar herriaren erresistentziarako eskubidea defendatzen jarrai dezan eta ez dezan Euskal Herrian inongo espresio sionistarik normalizatzen utzi.

